

Gaur urtebete Larraitzen

Euskaldunon Egunkaria, 1994-01-12: 9.

Gaur urtebete aldatu genuen Joxemi Zumalaberen oroigarri bizi bezala Larraitzeko magalean geruza fineko urkia; lurperatu genuen sustraiekin batera, hazia bailitzen, Euskaldunen Egunkariaren lehen alea, eta zabaldu genituen lurreko zauri irekian eta gainaldeko inguruan preziorik ez duten bere hezur eta haragien errautsak.

Joxemi beraren nahierara.

Mundua igo zen berez, egintza honek lekukotasun aberatsaren atxekidura hau eskatu balu bezala.

Geroztik bete dugu bere lankide eta jarraitzaile garenok egun bat hutsik egin gabe herriak behar duen egunkari euskalduna inprimatu eta zabaltzeko ausartziaz betetako agintzaria. Ez lasai, ez erraz, Joxemik berak joan artean ezagutu zituen zailtasunak, aldapan goraren nekeak, jasanez baino; batetik herriaren ahalegin ederrak bultzata, eta, bestetik, Jaurlaritzako Kultura Sailak jarri dizkigun oztopoen gainetik, Nafarroako eta Gipuzkoako aurrekontuetan ofizialki sarrarazitako laguntzari esker.

Ez da aski, baina ematen digu kuraia.

Egia dena da Euskal Herri euskalduna eraikitzeko projektua duen alderdi abertzale batek, espainolista den beste baten laguntza ankerrarekin, jarritako oztopoen aurka aritu behar izan dugula gure Legebiltzarrean bertan.

Izan dugu, bai, konsignaren aurretik kontzientzia jarri duen alderdikideen jokabiderik ere.

Hauei eskerrak.

Eta Larraitzeko agindua betetzea gure herriari neke eta min asko kostatzen bazaio ere, Euskara berez, bere eraginez, izan da Eusko Jaurlaritzako aurre kontuetatik kanpo egin ahal izateko gauza. Euskal alderdi guztietako gizemakumeen laguntzak, eta espresuki oposizioko alderdi euskaldun batzuen eraginez, erakutsi da euskara denon altxorra dela. Funtsean hau dela, herri bakoitzaren hizkuntza, herria herri osatzen duena; unibertsalak, geu ere bagarela!

Unibertsaltasuna ez dela Madrilen ez Parisen hasten.